

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Jirafa bat korrika



Xabier Etxaniz Erle

Patxi Zubizarretak XXIX. Ala Delta sari prestigiotsua eskuratu du ipuin honekin. *Korri, Kuru, korri!* ipuin honek hasierako esalditik harrapatzen du irakurlea: “Imajinatu aurrena jirafa bat anbulantzian... *ni-nooo, ni-nooo...* Imajinatu hurrena animalia amaigabea, ohatila batean, ospitale bateko larrialdietan sartzen (...) imajinatu orain jirafa zu zeu zarella eta ospitaleko korridoreetan barrena zoazela”. Bai, jirafa hori Nora delako, lurrean zegoen botila bat ikusi ez eta hanka bihurritu duen neska. Boxerretan dago, oraindik ere inauterietako jirafa mozorroa kendu gabe alboko boxerreko haur bat hizketan hasi zaionean. Eta alboko haur horrek, Kuru-k, zer gertatu zaion kontatu baino, “beste zerbait kontatuko nizuke gusturago, jirafa baten benetako historia, adibidez. Ez da horren tristea eta lagundu egiten dit buruari zutik eusten, betiere burua gora”.

Eta horrela Kuruk jirafa baten historia kontatuko dio Norari, lepo luzea duen animalari ketxine izena ematen dioten Etiopiatik abiatuta Sudan, Egipto eta Mediterraneo itsasoa zeharkatu ondoren Frantziaraino egindako bidaiarena, (bertan, besteak beste Altzoko Handiarekin duen enkontrua kontatzen zaigu).


Eta kontakizun horretan ahozko kontakizunetako egitura eta esaldi errepikakorrak erabiliz idatzizko eta ahozko narrazioen arteko zerbait eskaintzen digu Zubizarretak, “joan, joan eta joan”, jirafaren lepo gero eta handiagoaren neurriaz eginiko konparaketak txirula, makila, arrauna... erabiliz; edo eta atal

Korri, Kuru, korri!

PATXI ZUBIZARRETA

Irudiak: Rebeca Luciani.
Ibaizabal, 2018.
87 orrialde.
Haurrentzat.

Patxi Zubizarreta Dorronsoro idazlea (*Ordizia, 1964*).



guztietan, jirafaren historia kontatzen dizki-guten kapituluen amaieran bertso moduko bat, zailtasunei eta eragozpenei aurre egiteko indarra emanez, eta azken lerroan: “Baina betiere burua gora”, Kururi bere bizitzan aurrera egiteko kemenaren ematen dion esaldia.

Izan ere, azken atalean ikusi ahal izango dugun bezala Kuru, jirafa hura bezala, bidaiaren ari da, zailtasun, traba, muga eta eragozpen handiak gaindituz eta sufrirituz. Kamioi batetik erori eta hanka hautsita dago boxerrean, eta

Noraren laguntza beharko du bidaiaren aurrera egiteko. Hori bai, bera harrapatu eta berriro Afrikako lurraldeetara bueltatu nahi dutenengandik ihesi, korrika.

Istorioren miresgarria da, jirafa baten bidez distantzia jartzen duena, konparaketa baten bidez distantziak laburtzen dituena eta gozatuz barnea hunkitzen digun istorioa. ■